

DENOK BATERA

JOXE AZURMENDI

Euskal sozialismoak lehiaketa demokratikoan, joko parlamentarioan, Alderdi batekin parte hartu nahi badu, jendearen konzientzia mailatik abiatu behar du, eta ez taldetxo radikaldueen goiko mailatik.

Goiz ala berandu, parte hartu beharko du. Ez bait dago iraultza egunaren goiza berehalaxe gorrituko duen antzik. Hemengo gorabeheren desarroiloak Gobernuaren, amerikanoen, Merkatu Komunaren kontrol asko jasan beharko du oraindik. Fraga Iribarne nahiz Areilza behin ta berriro esan ta erasan ari dira, etxean nahiz kanpoan, ez dela deus «arriskatuko». Astiro astiro posible den neurrian, sozialismoak joko demokratikoan, hau da, jendaurreko ta agiriko lanean, parte hartu behar du. Bestela bere aukerak besteri utziko lizkioke.

Lan hortan jendearen konzientzia maila arruntetik abiatu behar da. Honek ez du esan nahi, talde bakoitzak bere konzientzia mailaren eta moldearen arabera ahalegindu beharko ez duenik aurrerantzean ere. Goiherriko industriari agitazioa egiten duena, ezin mintzatuko da, bailara hortan bertan ikastolen inguruan dabilena bezalaxe. Lizarra aldeko ardo ta ogi lurretan ezin desarroila litezke Bilbo inguruan bezalakoxe konzeptuak, eskemak, ikuspideak, helburuak, sentierak, mundu ikuskera. Bestalde, bakoitzak bere hesparruan eratu du bere konzientzia sozialista. Beraz, dauden talde sozialista radikalenak, horiek ere beren erara radikaldu bait dute beren konzientzia, beren bidetik jarraitu beharko lukete. Baina ez dirudi masa Alderdi batek hasieratik beretik maila hori hartzea errealista izango litzatekeenik. Oinarri komun bat hartu behar da. Ez bait da ahaztu behar, masa Alderdiaren lehen eginkizun bat zabaltzea izan beharko duela. Edo-ta: sakabanaturiko taldeak eta jendeak biltzea.

Alegia, masa Alderdiaren eginkizun bat zera izango da: abertzaleak, langileak, estudianteak, eta abar, bakoitzak bree esperentzien arabera, baina, komunikabide herstu ta zailak zeudenez gero, gehienbat bakoitzak bere aldetik desarroilatu duten sozialismoa, biltzea. Ez da erraza izango. Elkarri, sozialista direnik, ukatzen dioten taldez, beterik dago Euskal Herria. Zenbait sozialismo bil daitekeen, ikusi beharko da. Eta kanpoan gelditu beharko duenari, ezin zuzentasunik ukatuko zaio. Masa Alderdi bat ere tresna bat da. Ez da Aladinoren kriseilu miragarriarik. Bere ahalbideak izango ditu, ta bere ezintasunak ere bai. Ez da problema guzien soluzioa. Batzuen izan liteke.

Beraz, masa Alderdi sortzea ta indartzea ez da, zuzen-zuzenean, gaur iadanik badagoen zenbait talderen eginkizuna. Horiek beren eginkizunak dituzte. Masa Alderdi Sozialista, lehen-lehenik, talde horietan ez dauden sozialisten eginkizuna da. Horiek hor daudela, heste bide bat bilatzen dutenena. Baina gaurko zenbait elkarte eta taldek Alderdi barruan —elkarte edo talde gisa jarraituz— lan hobea egingo lukeela ere, ematen du.

Sindikalistek, adibidez, sindikato mailako beren lana egin lezakete sindikatoren batetan, eta Alderdi mailako beren lana Alderdi honetan. Sindikato bortitz bat eta Alderdi Sozialista bizi bat eskuz esku, zer pare ederra! Gainera, eskola, Instituto, Lizeo nahiz



Unibertsitateko irakasle ta ikasleen leku naturala politikan aritzeko, ez ote da Alderdi, sindikatorik edo baina lehenago? Kazetariena, artistena, eta abar, orobat? Alderdi barruan izan litezke, noski, sindikatoen ordezkari antzekoak, sindikatoekin enplegatzen direnak behintzat.

Baserritarrek beren mailan ihardun beharko lukete, noski. Alderdiaren barruan nahitaezkoak bait lirateke halako sailak. Eta berdin arrantzaleak, midikuak, dendariak eta beste guzikiak. Zer daki estudianteak baserrian zer problema dagoen eta nola burubida litezkeen? Estudianteak «problema guzien soluzioak» dakitzazke, apika; baina baserritarrari guti balioko dio jakintza horrek, beterik gabe. Eta Unibertsitatea barrutik sekula ikusi ez duen langileak, zer daki, Unibertsitatea nola eraberi litekeen, sozialismoak eskatzen duen eran? Printzipio orokarren batzuk jakin ditzake, baina ez nolako neurri praktikoak hartu.

Sail bakoitzak bere arloan eta denok batera jokatuz bakarrik eraiki liteke masa Alderdi.

Bistan da, sail bakoitzak bere modeloak eta burubideak bururatuko dituela. Radikalagoak ala gozoagoak. Jeneralean, industria haundiko langilea radikalago izan ohi da, eman dezagun, euskal kulturaren arloan ari dena baino. Euskal kulturaren arloan, izan ere itxura hartzen denez, lanean ari direnak ikusita, zer eraberritu baino problema haundiagoa da, oraingo, zer nola sortu. Ez dagoenik ez dago iraultzerik...

Alderdiak, ba, bere erdigunea ta bere eskuin eta ezker muturrak izango lituzke. Sail ezberdinak. Konzientzia maila ta molde ezberdinak halaber.

Programak, halare, Alderdi demokratikoetan oinarri komuna adierazten dute. Minimo bat. Talde guzien zinezko interes errealean balantzea. Ez idealak, Alderdi ez demokratikoetan sarri izan ohi den moduan. Programak alderdiar guzien interesen eta asmoen konpromiso bat adierazten du. Beraz, han estanpatzen dira marxistak ez marxistari, abertzale militanteak hain militante ez denari, proletario gogorak ez dakit beste zeini, eta aldrebes, elkarri egiten dizkioten kontzesioak. Alderdiar guziek onartzen duten minimoa da programa. Gero, marxistek beren taldean gogor lanean segitzea, eta abar, sail bakoitzak, bidezko da. Zenbait alderdiar programa arrunta baino askoz aurrerago ibiltzea, hortakoz, bidezko ezezki, ia nahitaezko da.